



# ICAGI

ILUSTRE COLEGIO DE LA ABOGACÍA DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

ICAGI-ren Gabon txartelen

# VIII. LEHIAKETA

2021ko Abendua



Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuak Gabon Txartelen VIII. Lehiaketa antolatzen du 2021. urterako.

Lehiaketan parte hartzeko, ezinbestekoa da oinarri hauek onartzea:

## 1. Partaideak:

Lehiaketan, ICAGIko elkargokideen 4 eta 12 urte bitarteko seme-alabek parte hartu ahal dute, elkargokidea jardunean aritu ala ez. Salbuespen izango dira ICAGIko Gobernu Batzordeko kideen seme-alabak, ezingo baitute parte hartu. Elkargokideen bilobek eta ilobek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

## 2. Gaia:

Gaia Gabonak izango dira, eta egile bakoitzak bere ikuspegia emango du.

## 3. Kopurua:

Partaide bakoitzak marrazki bakarra aurkeztu ahal du.

## 4. Formatua:

Marrazkiak DIN A4 formatuan aurkeztu beharko dituzte, zuri-beltzean edo koloretan.

## 5. Teknika:

Partaide bakoitzak nahi duen teknika aukeratu eta erabili ahal du (argizariak, errotuladoreak, arkatza, akuarela, etab.), baita nahi duen materiala ere (kartoi mehea, paper arrunta, kotoia, etab.), baldin eta ez bada hondatzen ohiko moduan erabiltzen.

## 6. Marrazkien Originaltasuna:

Marrazkiek originalak eta egile eskubiderik gabeak izan beharko dute, eta ez dira kopiak onartuko. Ezingo dira aurretik beste lehiaketa batera aurkeztutako marrazkiak aurkeztu.

## 7. Identifikazioa:

Marrazkiaren atzean izengoitia eta adina adierazi beharko ditu egileak, eta gutunazal batean sartu beharko du. Gutunazal horretan, marrazkiaren gain, beste gutun-azal itxi bat ere sartu beharko du datu hauekin: izengoitia, izen-abizenak, adina eta elkargokide den senidearekin harremanetan jartzeko datuak (helbidea, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia).

## 8. Aurkezteko tokia eta epea:

Marrazkiak aurkezteko epea abenduaren 20an, astelehena, amaituko da, 14:00etan. Gutun-azala posta ziurtatu bidez bidali edo aurrez aurre aurkeztu ahal izango da helbide honetan: Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua, Mandasko Dukearen pasealekua, 11 - 20012 Donostia), edo probintziako edozein togi-aretoan. Gutun-azalaren kanpoaldean honako hau idatzi behar da: GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUAREN GABONETAKO ZORION-TXARTELEN VIII. LEHIAKETA. Posta ziurtatu bidez igorritako lanak onartzeko, zigilu-markako data hartuko da kontuan.

## 9. Sariak:

Adinaren arabera kategoriak ezarriko dira. Kategoriaz guztiak izango dute sari bat, eta lehiaketaren irabazleak beste bat jasoko du: FNAC-en erabiltzeko 300,00 euroko erosketabonua bat. Marrazki irabazlea Elkargoaren jabetzakoa izango da, eta ICAGIren 2022eko Gabonetako zorion-txartel elektronikoen azaletan agertuko da.

## 10. Partaidetza diplomak:

Lehiakide guztiak jasoko dute parte hartu dutela egiaztatzen duen diploma bat, baita opari bat ere.

## 11. Epaimahaia:

Epaimahaia bost kide izango ditu: lau ICAGIko Gobernu Batzordeko kideak izango dira, eta bosgarrena kulturaren munduko pertsona ospetsu bat edo esperientzia artistikoa duen pertsona bat izango da, aipatutako Batzordeak izendatua. Lanak ebaluatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: sormena, diseinua, lana egiteko abilezia, originaltasuna eta lehiaketaren gaiari begirako egokitasuna.

## 12. Erabakia:

Epaimahaia 2021ko abenduaren 22an hartuko du erabakia, eta webgunearen eta Newsletter-aren bidez jakinaraziko du.

## 13. Marrazki parte-hartzaileak ikuskatzea:

Jasaten ari garen egoera Covid dela-eta, sari-banaketa ez da Elkargoan bertan egingo, beti egin ohi den moduan. Horrenbestez, marrazki parte-hartzaile guztiak Internetera igoko dira, eta opariak eta diplomak kasu bakoitzean egokitzat jotzen den moduan helaraziko dira.

ICAGI hainbat euskarri grafiko eta telematiko erabili ahal du lan sarituak hedatzeko. Lan horiek Elkargoaren esku geratuko dira, eta irabazleek ez dute izango ordainsaririk edo inolako irabazirik jasotzeko eskubiderik.

Lehiaketa honetan parte hartuz gero, partaideen gurasoek edo tutoreek baimena emango diote ICAGIri ekitaldiaren argazkiak argitaratzeko, bai bere webgunean, bai bestelako argitalpenetan.

## 14. Marrazkiak jasotzea:

Saririk jaso ez duten marrazkiak ICAGIren egoitzan gordeko dira hiru hilabetez, eta egileek edo haien tutore edo/eta legezko ordezkariak horiek jasotzeko aukera izango dute epe horretan. Epe hori igarota, Elkargoak nahi bezala erabiliko ditu.

## 15. Lehiaketan parte hartzeko oinarri hauek onartzea:

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta epaimahaiaren erabaki apelaezina onartzea.